

ALMUDENA OTAOLA

**Senaturako Arabako hautagaia / Candidata al Senado por Álava
Trebina, 2019-04-14**

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.

El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Euskadi, Araba eta Trebiñuk mugitzen gaituzte. Gure konpromisoen artean, Trebiñun bizi diren pertsonen arazoak eta beharrak daude. Ez ditugu ahaztuko. Zurea, zuena, gurea da. Ez dugu Trebiñu ahazten. Hitzetatik haratago, ekintza zehatzak aurkez ditzakegu.

Legez besteko proposamen bat onartu genuen lurraldeko mugak berritzazeko. Zuek esan eta guk bete. 1995eko Senatuak onartu zen zuen arazoak zerbitzu batzuk jasotzeko, lurralde etengabe baten bizoitzeagatik. Lege bezteko proposamen horiek ez dira babestu.

Horregatik, estatuko aurrekontuak negoziatu genituenean barrendegia gogoan izan genuen eta diru partida bat lortu genuen La Pueblarako sarrera den Zadorra ibaiko zubia zaharberitzeko. Gainontzeko alderdiek ez zuten Trebiñu gogoan izan aurrekontuetan. EAJ- PNVk baino ez zuen Trebiñu aipatu.

Pertsonak jartzen ditugu beti erdigunean. Ez dira hitz hutsak, errealitatean isla du jarrera horrek. Ikusi besterik ez dago Arabako Foru Aldundiak, EAJ-PNVk zuzendutakoak, zuokin guztiokin duen konpromisoa.

Gure esku dagoen heinean, Trebiñuren eta bertan bizi diren pertsona guztien alde egiten jarraitzeko konpromisoa dugu estatuko aurrekontu orokorren bidez, aldi berean barrendegiarentzako behin betiko konponbide bat bilatzen dugun bitartean. Herritarrei kontsulta egiteko une historikoa heldu da.

EAJ-PNVk pertsonak eta lurraldea ditu gogoan. Baina, horrez gain, Araba izateari buruz beren iritzia emateko aukera eskatuz Trebiñuko herritarren eta erakundeen aldarrikapen historikoa dugu gogoan. Beraiei dagokie Araban sartu nahi duten ala ez esatea.